

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

1. Adituen laguntza animaliekin

Gure maskoten portaeraren sailkapen egokia egin ahal izateko, eta zerbitzurik egokienean jarri ahal izateko, adituen laguntza beharko dugu. Horretarako, gure langileen plantillaren barruan, animaliekiko harremani buruzko ikasketetan graduatuak izango ditugu, eta horiek arduratuko dira bi maskota-taldeen profilak zehazteaz.

Izan ere, azpalditk azaldu dugu talde bakoitzak zer ezaugarri mota izatea komeniko litzatekeen, baina beharrezkoa da aditu batek ezaugarri horiek identifikatzea maskotetako bakoitzean eta hautaketa bat egitea, hori izango litzateke jarduera gauzatzeko erabiliko dugun baliabide nagusia. Horri dagokionez, prest gaude aditu horiek emandako aholkuak jarraitza eta behar diren beste baliabide batzuk gehitzera; izan ere, maskota bakoitzaren erregistroak idatzi beharko ditugula badakigu, sailkapena dokumentatuta edukitzeko eta, horrela, jarraipen zehatzagoa izateko. Erregistro horiek bigarren mailako baliabidea izango litzateke, jarduera gauzatzeko errazten lagunduko digutelako.

2. Langileen hautaketa eta prestakuntza

Behin gure maskoten portaeraren sailkapen egokia egiteko, adituen laguntza behar izango dugula aipatuta, beharrezkoa izango da gure langileen plantillaren barruan, animaliekiko harremani buruzko ikasketetan graduatuak izateaz gain, gizarte-harremanetan eta komunikazioan graduatutako langileak izatea behar izango ditugu. Talde honek, bi alderditan banatuko dugu, sektore publikoan eta pribatuan lan egingo dutenak.

Guretzat oso garrantzitsua da gure bezeroak agusto sentitzea, horregatik saiatuko gara langile onenak eta gaituenak kontratatzen. Horixe izango da gure baliabide nagusia, langileak proba desberdinen bidez hautatzea.

Hautaketa prozesua hasteko, sektore publikoko zein pribatuko langileei hasierako elkarrizketa bat egingo diegu. Bertan, beraiekin hitz egingo dugu eta galdera errazak egingo dizkiegu. Gainera, haien curriculumak erakutsi beharko digute, gurekin lan egiteko profil egokia baduten ikusteko. Sektore publikoaren kasuan, komunikazioarekin eta pertsonetikiko tratuaekin lotutako aurretiazko ikasketak izan beharko dituzte. Gainera, gutxienez urtebete eskatuko zaie adinekoekin lan egin dutenei. Gainera, animaliak gustatu beharko zaizkie. Kafetegiko langileek alde aurreko ikasketaren bat izan beharko dute, eta gutxienez urtebete bat egin beharko dute lanean jendaurrean.

Hautatzen diren langileak probaldian jarriko dira hilabete batez, nola funtzionatzen duten ikusteko. Proba gaitzen badute, kontratatu egingo ditugu. Hala ere, gurekin lan egiten dutenean, proba batzuk egin beharko dituzte aldi-aldi, beren errendimendua zuzena den eta enpresaren aldi berean eboluzionatzen ari diren ikus dezagun.

Izan ere, garrantzitsua da aipatzea bigarren mailako baliabide bezala, gure profesionalak eta langileak oinarrizko prestakuntza jasoko dutela. Horietako bat, lehen sorospenei buruzko

ikastaro bat jasotzea izango da. Guretzat oso garrantzitsua da gure langileak egoera desatseginen aurrean erreakzionatzeko gai izatea, batez ere sektore publikoko langileek inplikazio handia izan beharko dute, adineko pertsonekin lan egiten dutenak direlako. Hau da, guretzat, zalantzarik gabe, gure bezeroen osasuna eta gure maskotena oso garrantzitsua izango da.